



Marratxoaren erabilera, berriz ere

Marratxoaren zenbait erabilera EHULKUren aholkuetan jorratu ditugu jada:

○ **marra**

- [eta zenbakiak](#): *6tik 8ra* [** 6-tik 8-ra*]
- [hitz elkartuak eta izenondoak](#) [*kafe erre usaina*]
- [hitz elkartuak eta -a itsatsia](#): *kultur etxea / kultura-etxea* [** kultur-etxea*]
- [hitzen bikoizketak](#): *zuri-zuri, etxez etxe* [** etxez-etxe*]
- [izen generodunak](#): *aita-amak*
- [jatorri-adjektiboak eta herritar-izenak](#): *austro-hungriar, anglo-normandiar*
- [kanpoko izen bereziak](#) [*Newtonek / Newton-ek*]
- [kultura-aurrizkiak](#): *bio, psiko...*
- [-\(e\)LA ETA ala -\(e\)LA-ETA?](#)
- [marra, desanbiguatzaile](#) [*animalia hiltzailea ≠ animalia-hiltzailea*]
- [siglak deklinatzean](#)
- [sudurluze elkarketak](#) [*mutil begiurdina / mutil begi-urdina*]

EHULKUren aholku honetan, beste erabilera batzuk ditugu hizpide.

SASI aurrizkia¹

- Tradizio luzea (luze samarra) duten elkarketetan (hiztegian jasoak) lotuta idazten da:

sasiama	sasijakitun (iz./adj.)
sasieskola	sasikume
sasijainko	sasiletradu
sasiezkontza	sasimaisu
sasijakintsu (iz./adj.)	sasiprofeta

- Elkarketa berrietan lotuta zein marratxoz idatz daiteke:

Sasi aurrizkidun izenak

sasi-ekologista	sasioreka
sasi-hizkuntza	sasijustizia
sasi-zientzia	sasizientzia
sasi-mito	sasizientifismo
sasi-garapen	sasidokumental
sasi-pragmatismo	sasihipertrofia
...	...

Sasi aurrizkidun adjektiboak

sasi-absolutu	sasiesferiko
sasi-intelektual	sasikontzeptual
sasi-literario	sasidimentsiogabe
sasi-independente	sasilineal
sasi-bibliko	sasioptimo
sasi-zientifiko	sasiekologiko
...	...

- **Sasizientzia / sasi-zientzia** moduko hark XX. mendeko genozidioa ekarri zuen.

(1) *Euskaltzaindiaren Hiztegia*: (Hitz elkartuetan, lehen osagai gisa). Sasikoa, egiazkoa ez dena, benetakotik itxura besterik ez duena.

ZEHAR aurrizkia¹

- Marratxoz idazten dira:

zehar-estilo

zehar-etzanean

zehar-galdera

zehar-haize

zehar-ekintza

zehar-malda

zehar-transmisio

zehar-saiheska

zehar-haga

zehar-pareta

zehar-ebaki

zehar-esan

...

(1) *Euskaltzaindiaren Hiztegia*: Hitz elkartuetan, lehen osagai gisa, zeharka dagoena edo zeharkakoa dena adieraziz.

Elkarrekikotasuna adierazten duten hitz elkartuak

- Marratxoz lotuta idazten da ELKAR izenordaina:

elkar-aditze

elkar-hartze

elkar-maite

elkar-ulertze

elkar-maitasun

...

elkar-baztertzaile

elkar-hazkunde

elkar-blokeatze

elkar-osagarri

elkar-inhibizio

elkar-induktantzia

...

- Bi aukera **elkar-baztertzaile** edo gehiagoren artetik hautatu beharreko proposamen edo jardunbideetariko bat. (Elkar baztertzen duten bi aukera edo gehiagoren...)

Marratxoa eta juntagailuaren ordezkoi

- Gisa honetako elkarketak izan genituen hizpide izen generodunei buruzko fitxan:
 - aita-amak, aitona-amonak, aita-amaginarrebak, neba-arrebak...*
- Bestelako izenekin ere eratu daitezke:

ikasle-irakasle	goiz-arrats	nagusi-langile	atze-aurre
argi-itzal	hortz-hagin	neska-mutil	...
bihotz-birika	osaba-iloba	on-gaitz	
galde-erantzun	izeba-iloba	galdu-irabazi	

- Curriculumean **ikasle-irakasle** harremanak ere aipatu behar dira. (ikasleen eta irakasleen arteko...)
- Zer **on-gaitz** ditu gaur egungo itzulpen-politikak?
- Enpresaren 2019ko **galdu-irabaziak** kalkulatu behar dira.
- Etxeko **atze-aurreak** garbitu behar dira.



Aita-emeak tabernan daude. **Ama-alabak** jokoan.

Mota honetako elkarketak pluralean jokatu behar dira, eta marratxoz idatzi.

Marratxoa eta juntagailuaren ordezkoi

- Horrela eraturiko adberbioak ere marratxoz idazten dira:

atzera-aurrera	hartan-horretan
buru-belarri	hara-hona
eskuin-ezker	...
han-hemen(ka)	

- Eta adjektiboak ere bai:

gazi-gozo
 gor-mutu
 zuri-gorri
 zuri-urdin
 ...



Onomatopeiak: marratxozen lotzen dira osagaiak

bar-bar
barra-barra
danga-danga
dinbili-danbala
kar-kar
kris-kras
plasta-plasta
taupa-taupa
tiki-taka
txio-txio
...

NORK, NON, NONDIK, ZEIN, ZENBAT + NAHI (K, N edo T-z amaitzen diren galdegileak + NAHI)

- Marratxoz idazten dira:

nork-nahi

non-nahi

nondik-nahi / **non**-nahitik

zenbat-nahi

zein-nahi

- Edo lotuta:

nornahik

nonnahi

nonnahitik

zenbannahi

zeinahi

- **Zenbat-nahi / zenbanahi** jan dezakezu.

(* **Zenbatnahi** jan dezakezu.)

Bukatzeko, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, honako hitz(-elkarte) hauek ere idazten dira marratxo:*

azpi-indize	gaizki-esan (iz.)	kristau-demokrata	galtza-jario (adj.)
bat-bera	gaizki-ulertu (iz.)	kristau-demokrazia	txima-jario (adj.)
afari-merienda	gantz-azido	malda-gora	hitz-jario (adj.)
atze-oihal	goi-erliebe	malda-behera	gezur-jario (adj.)
azken-aurreko	hil-behar (iz.)	marxismo-leninismo	berri-jario (adj.)
behe-erliebea	igeri-maskuri	nortasun-agiri	
bat-egite	iraitz-aparatu	sor-marka	auto-stop
denbora-pasa	iraungitze-data	sorgin-orratz	chow-chow
denboraldi-aurre	itzul-lan	txanda-pasa	dalai-lama
disco-formako	jakin-behar (adj.)	txartel-leihatila	moto-kros
egun-argi	jakin-nahi (iz.)	ugal-aparatu	ping-pong
egun-pasa (adb.)	jakin-min	zer-nola	play-back
gaizki-egin (iz.)	kalte-ordain	zer-nolako	pot-pourri
		zientzia-fikzio	rock-and-roll
			tse-tse euli

❑ (*dirulaguntza eta ez diru-laguntza*)

Bukatzeko, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, honako hitz(-elkarte) hauek ere idazten dira marratxoaz:*

horma-biko
pasa-marra
zesta-punta
ezker-zehar

